

Helburuak

Biltzea: bertsolaritzari buruzko dokumentuak aurkitu eta bildumaratzeko.

Dokumentatzea: askotariko ikuspegiekin jasotako bilduma zabala antolatzen.

Katalogatzea: edukiaren balioa ezagutu eta dokumentuari dagokion tokia emateko.

Digitalizatzea: formato digitalera pasatzea, kontsulta erraztu eta kontserbazioa bermatzeko.

Kontserbatzea: bertsolaritzaren ondarea gorde eta zaintzeko.

Eskaintzea: online nahiz aurrez-aurreko dokumentazio zerbitzua emateko.

Ikertzea: dokumentuen bidez, bertsolaritzaz gehiago jakin eta ezagutza berria sortzeko.

Saretzea: sortzaile eta erabiltzaileekin hartu-emanen bertso ondarea biziberritzeko.

Gizarteratzea: taldean ondutako sorkuntzaren ondare kolektiboa mundura zabaltzeko.

Kontaktua

 bdb.bertsozale.eus

 xenpelar@bertsozale.eus

 +34 943 69 42 77

 Subijana Etxea
Kale Nagusia 70
20150 Villabona



Laguntzaileak eta Babesleak



Bertso Dokumentazio Bilketa



Biltzen duguna

Bertso saioen informazioa

Bertso grabazioak

Argazkiak


Bertso-paperak

Kartelak

Liburuak

Ikerlanak

Eta bertsoarekin zerikusia duen
bestelako dokumentazioa



Zerbitzua

Xenpelar Dokumentazio Zentroak bertso ondarearekin zerikusia duten **dokumentuak berreskuratu, gorde eta zabaltzen** ditu, **herritarren eskura** egon daitezen.

Bilduma osoa hezkuntza eta ikerketa helburu duten egitasmoetarako erabilgarri dago, baita erabilera pertsonalerako ere.

Argitalpenen kasuan, internet publikazioa barne, dokumentazioari dagozkion erabilera baimenak eskuratu beharko dira.

Xenpelar Dokumentazio Zentroko dokumentazioaren kontsulta doakoa da eta materialaren kopia eta hautaketa lanak *zerbitzu-tarifa* bidezkoa.



Proiektua

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren berezitasun nagusia **bilketa-sistema** da: Bertsozale Elkartearen egitasmoen bidez elikatzen da, baina batez ere, **bertsozale eta eragileek bildu eta dohaintzan emandako dokumentu eta funtsekin.**

Zuk ere lagundu dezakezu **bertsolaritzaren bilduma hau aberasten**: edozein euskarritan dagoen bertsozko dokumentazioaren berri baduzu eta dokumentu horri erabilera zabalago bat eman nahi badiozu, **jarri gurekin harremanetan**:

Gure kultur ondarea ezagutu, zaindu eta hedatzea guztion ardura da!